

Hego Afrikan bizi-itxaropena luzatzea eta kutsatzeak gutxitzea lortu dute antirretrobiralek

Hiesarekin lotuta Afrikatik iristen diren albisteak askotan etsigarriak diren arren, itxaropena pizten duten bi ikerketa argitaratu ditu *Science* aldizkariak. Hiesa tratatzeko erabiltzen diren antirretrobiralek Hego Afrikako eskualde ez-industrializatu batean izan duten eragina aztertu dute biek, eta, bietan gidaria hango unibertsitatea izan bada ere (KwaZulu-Nataleko Unibertsitatea), bakoitzak alderdi desberdinei jarri die arreta. Eta biek baieztatu dute tratamendu erretrobiralek ondorio onuragarriak izan dituztela.

KawaZulu-Natal eskualdea Afrikako hego-ekialdeko eremu pobreenetako bat da. Han, hiesaren prebalentzia oso handia da; helduen % 29 seropositiboa da, eta ehunekoa askoz ere handiagoa da 30-49 urteko pertsonen artean: 30-49 urteko emakumeen ia erdiak dira seropositiboak, eta 35-49 urteko gizonezkoen herenak.

2003. urtean, Osasun Sailak antirretrobiraletan oinarritutako tratamendua hedatzeko programa bat jarri zuen martxan, eta ikertzaileek programak izandako ondorioak neurtu dituzte, batetik, bizi-itxaropenean, eta, bestetik, gaitzaren hedapenean (kutsatze-kopurua).

Lehenengo ikerketan gogorazi dutenez, munduko leku gehienetan bizi-itxaropena luzatzen ari zen bitartean,

hiesaren erruz alderantzizkoa gertatu zen Afrikaren hego-ekialdean 1980ko hamarkadaren azken urteetatik aurrera. XXI. mendearen hasieran, egoerak bere horretan jarraitzen zuen, eta bereziki larria zen KawaZulu-Natalen: 2000tik 2003ra, helduen bizi-itxaropena 55,4tik 51,3ra igaro zen emakumezkoetan, eta 49tik 46,9ra gizonezkoetan.

Ikertzaileek frogatu dutenez, programa hasi zenetik 2011ra bitartean, bizi-itxaropena 9 urte luzatu da gizonetan, eta 11 emakumeetan. Horrekin batera, depresioa, drogen kontsumoa eta suizidioak jaitsi egin dira. Ikertzaileek alderdi ekonomikoari ere begiratu diote, eta ondorioztatu dute programa guztiz onuragarria dela, irabaziak askoz handiagoak baitira gastuak baino (26 aldiz handiagoak, hain justu).

Bigarren ikerketak gaitzaren hedapenean jarri du arreta, eta baieztatu du antierrretrobiralen ondorioz kutsatze-kasuak asko gutxitu direla. Emaiza esanguratsua da, bikote



Hiesaren ikerketei eman zien azala *Science* aldizkariak. ARG.: © MALCOLM LINDON.

ofizialetik kanpoko sexu-harremanak ohikoak baitira han, eta pentsatzen baitzuten horrelako lekuetan kutsatzeak gutxitzea askoz ere zailagoa zela. Usteak uste, baina, antirretrobiralek % 38 gutxitu dute hiesa kutsatzeko arriskua.

Ikerketak 2001ean hasi eta 2011n amaitu ziren, eta, guztira, 101.000 pertsonak parte hartu dute. KwaZulu Nataleko Unibertsitateaz gain, Harvard eta Londresko unibertsitateak ere aritu dira bi ikerketetan. ●

Higgs bosoiaren aurkikuntza berresten duten froga gehiago aurkeztu ditu CERNeK

Joan den uztailean iragarritako aurkikuntza Higgs bosoi bat dela berresten duten froga gehiago aurkeztu zituen martxoan CERNeK.

CERNeK adierazi duenez, "iaz aurkikuntza iragarri zenean eskuragarri zeuden baino bi bider eta erdi datu gehiago aztertu ondoren, Higgs bosoi baten geroz eta itxura handiagoa hartzen ari da partikula berria". Hala ere, ez dute baieztatu nahi izan

aurkitutako partikula Eredu Estandarrak postulatutako Higgs partikula hori bera denik, eta aipatu dute Eredu Estandarra baino urrunago doazen beste teoria batzuetan iragarritako hainbat bosoiatako arinena ere izan daitekeela.

CMS eta ATLAS esperimenduetan aztertutako datu berrien artean daude aurkitutako partikularen spina eta paritate, eta ondorioa da Higgs bosoiarentzat iragarritako balioekin bat

egiten dutela: spinik ez eta paritate positiboa.

2012 osoa hartzen duen datu-multzoarekin lortu diren behin-behineko emaitzak "bikainak" direla adierazi du CMSren bozeramaile aritu den Joe Incandelak, eta esan du bere ustez "argi dagoela Higgs bosoi baten aurrean gaudela, nahiz eta oraindik bide luzea dugun zein eratako Higgs bosoi den jakin arte". ●